



**ORTZAIZEKO
HERRIKO
ETXEA**
—
MAIRIE
D'OSSÈS

2022 KO URTEKARIA



AURKIBIDEA

Aurrekondua-	2
Estado zibila -	5
Hirigintza -	5
Plazaren antolaketa-	10
Hilerria-	11
Ortzaizeko bizia-	12
Herriko zerbitzu soziala -	21
Eskolak -	22
Kultura -	24
Laborantxa-	26
Herriko ontasunak -	27
Obrak -	28
Gure hondakinak-	29
Nahas mahas-	30

AUZAPEZAREN HITZA

Neguko uholdeen ondotik, nork erranen zuen holako idortea jasanen ginuela 2022an. Errekak eta ur erreserbak agortuak izanez herria behartua izan da ura karreatzea kamionetan. Ondorioz, gogoeta bat eremana da gure ur sarea Irisarriri, Arrosari eta zendako ez Burkairi lotzeko.


2022an, nahiz eta urrun iduri, Ukrainiako gerlak ondorioak ekarri ditu gure bizietan besteak beste lehengaien prezioak goratuz. Ondorioak izanen ditu ere herriko aurrekontuan.

Bestalde gogoeta bat eremaiten dugu herri barnearen antolaketari buruz CAUE elkartearen laguntzarekin. Arrosategiaren jabetzeak emaiten dauzkigun ahal berriak ikertuko ditugu, 2023ko helburua izanen baita eskolaren eta herriko etxearen inguruko proiektuaren finkatzea. Beste gertakari batek ere gure herria mugiarazi du: kabalkadak. Nahi nituzke hemen antolatzaileak, parte hartzaileak eta nahiente guziak eskertu. Zuen engaiamenduari, talentuari eta temari esker arrakasta haundia ezagutu du.

Oroitzapen horiek gogoan ditugula, herriko hautetsi guziekin batera, urte berri on bat desiratzen dauziet deneri.


AURREKONDUA

FUNTZIONAMENDU GASTUAK



Karga orokorra	725 466 €
Langileria karga	307 100 €
Egunerokotasuneko beste kargak	223 500 €
Beste (finantza karguak, ez ohizko kargak, GNGIR berriz isurtzea)	30 089 €
Ez-ustezko kargak	30 000 €
Inbertsio sekziora buruzko transferentzia	357 632 €
OROTARA	1 673 787 €


INBERTSIO GASTUAK




Bideak eta artzain bideen segurtatzea	160 000 €
Elizako teilatuaren arraberritzea	178 961 €
Katxerenea apartamendua	65 000 €
Eragiketa desberdin batzu (Herriko bastimenduak, helbideratzea, Denen etxearen arraberritzea, garaja baten erostea)	120 000 €
2021eko abenduaren uholdeak	120 000 €
Plazaren antolaketa	100 000 €
Aitzineko inberstioko ziloa	130 408 €
Maileguen kapitalaren itzultzea	100 500 €
Beste (Bermea, ez-ustezko gastuak)	23 000 €
OROTARA	997 869 €

AURREKONDUA

FUNTZIONAMENDU DIRU-SARTZEAK



INBERTSIO DIRU-SARTZEAK



AURREKONDUA

FISKALITATEA

ZERGAK	HERRIKO TASAK 2021	ZERGA OINARRI AURREIKUSPENAK 2021	HERRIKO TASAK 2022	DIRU SARTZEAK
Eraikiaren gaineko lur-zerga	%30,32	797 400	%30,32	241 772
Eraikia ez denaren gaineko lur-zerga	%26,67	62 400	%26,67	16 642
Bigarren etxebizitzaren bizitegi zerga	%19	152 578	%19 *	28 900
OROTARA				287 314

Bigarren etxebizitzaren bizitegien gaineko herriko tasa izoztua zen 2022 arte. Berriz ikusia izaiten ahalko da 2023tik goiti.

ZORRAK

2022an pagatuak : 111 930 € (100 356 € kapitala + 11 574 € interesak)

Zor den kapitala 2022/12/31n: 663 640 €


HERRIKO MAILEGUEN BERRI

MAILEGU MOTA	MAILEGUAREN HASTAPENA	HASTAPENEN KAPITALA	MAILEGUAREN BUKAERA	PAGATZEKO DEN KAPITALA (2022/12/31N)
Xerrenda lotizamenduar lur eremua	2005/01/21	162 500 €	2025/01/10	22 307 €
Florentzenea	2006/03/10	500 000 €	2026/02/25	98 209 €
4 apartamendu Apezetxean	2007/06/20	184 370 €	2022/07/01	0 €
Florentzenea berria	2012/02/11	299 225 €	2037/03/01	193 123 €
Arrosategia	2021/06/31	400 000 €	2033/07/21	350 000 €

2023 urtean, mailegu guzien ordaintzeko herriak 94 683 € pagatuko ditu.

SORTZEAK

TROUNDAY GOYTY Mattin 02/12a
GARD Kepa 07/03a
FOURCADE Noé 07/13a
LEKUMBERRY Battitt 09/22a
LEKUMBERRY Maddi 09/22a




HERIOTZAK

SERRA sortzez TRISTANT Marie-Jeanne 01/01a
CHOUTCHOURROU Henri 01/06a
VIDEGAIN sortzez ARRAYET Marie-Jeanne 07/29a
ERRAMOUN Daniel 07/31
DRONDE Christine 09/26a
DE SUSBIELLE Jean-François 10/15a
INDA Pierre 10/17a
OXANDABURU Pierre 11/02a
EMIEL Raymond 11/03a
TELETCHÉ sortzez BEHEITY Marie 11/14a
COQUILLARD Hubert 12/29a

EZKONTZAK

DUPUY Michel eta FERNANDEZ Florence 04/01a
CHRISTIN Annabelle eta DIBAR Battitte 04/08a
BENARD Adrien eta MERZISEN Stefanie 08/13a
HERVE Franck eta LEGARTO Florence 09/17a
CHANGALA Panpi eta JUANICOTENA Maider 10/22a



HIRIGINTZA

URBANISMO AGIRIAK

GALDETZAILEA	PROIEKTUA
MOULIA Laurence	80 m ² -ko etxe baten eraikitzea
LUCU Kattin et TEXIER Louis	Etxe indibidualaren eraikitzea
ERLEA IMMO/ AROTCARENA Odette	Etxe indibidualaren eraikitzea

AURREDEKLARAZIOAK

GALDETZAILEA	PROIEKTUA
LUCU Christian	Gehigarri baten eraikitzea
SCI SASKINIA	Hetsia ez den teraza estali baten eraikitzea
URDAMPILLETA Michel	Teilatuko bi idekiduren pausatzea
BEYRIE Argitxu eta KAMMENTHALER Eric	ARRETXEIA etxearen arraberritzea
LEKUMBERRY Laurent eta CHEVALIER Sarah	Aitzina aldatzen duen etxe baten arraberritzea
ONDARS Eugène	Idekidura sortzea eta aldatzea
SALLABERRY Battitt eta Maria	Etxebizitza baten arraberritzea
DUPUY Michel	Teilatuko 2 idekiduraren sortzea
WATIN-AUGOUARD Anne	Pareten freskatzea eta jadanik baden berinazko gelaren berregitea
GOICOCHEA Iñaki eta ETCHEBARNE Amaia	Pizina baten eraikitzea + baratzeko aterbea
SAS ALDABIA	Bilkura gela bat magasin baten bilakaraztea
GALLO Franck	Leiho bat mitra gisako idekidura bilakaraztea
EMMEO : VALBOUSQUET PHILIPPE-EN ETXEAN	Energia berriztagarri panelen pausatzea

ERAIKITZE BAIMENAK

GALDETZAILEA	PROIEKTUA
LARRONDE Marc eta LABARTHE Camille	Etxe indibiduala
CHRIBRAC Edith	Aterbe bat apartamendu bilakaraztea
IRIGOYEN Andoni eta SABAROTS Marina	Etxe indibiduala
TARRIT Stéphan	Garaja baten sortzea eta aterbe baten suntsitzea
SCI TEILERIA	4 etxebizitzako etxea, auto aterbearekin
GOICOCHEA Iñaki et ETCHEBARNE Amaia	Emendatze bat garaja baten sortzeko
HERLAX Antton	Sabai baten arraberritzea etxebizitzatako
MUNOS Lionel	Etxe emendatzea auto aterbe eta bizikleta gelarendako
MARTINON Loic eta FOUROT Lorène	Erregelan jartze eta garaja handitzea
BERTERRETICHE Henri	Laborantxa eraikin baten eraikitzea / arditegi eta aterbe
URDAMPILLETA Michel	Hetsia ez den auto aterbea
SCI PEHITZENIA	Eraikin baten parte bat, artisautza tailer bat bilakaraztea idekidurak sortuz
SAS POTERIES GOICOCHEA	Poteria esposaketarentzat aterbea
GIORGINI David eta CONNEZ Virginie	37 m²-ko garaja hetsi baten eraikitzea
TORO Simon	Pizina baten eraikitzea eta pool house-aren handitzea

HEGO BAXENABARREKO ELKARGO AZPIKO TOKIKO HIRIGINTZA-PLANA

2019ko ekainaren 19ko deliberazioaren bidez, Euskal Hirigune Elkargoa, Hego Baxenabarreko Elkargo azpiko Tokiko Hirigintza-planaren lantzera engaiatu da.

Zer ote da plan hau?

Elkargo azpiko Hirigintza Planak ondoko 10 urteetarako antolaketa- eta hirigintza-arauak finkatzen ditu perimetro jakin batean: zein eremu zainduak izanen dira? Non eraiki dezakegu? Zer eraiki dezakegu? Eta abar. Arau horiek ezartzeko, kontutan hartzen dira ingurumena, dauden arriskuak, zaindu beharreko ondare-elementuak, araudi-eremua eta tokiko jokagaiak, hala nola aloiamendua, ekonomia eta mugikortasuna. Maila handiagoko beste dokumentu batzuetan finkaturiko ardatzetara ere egokitu behar dira, hala nola zenbait adibide emateko: lege nazionalak, Lurralde Proiektua, Lurraldeko Klima-Aire-Energia Plana, Mugikortasun Plana edo Lurralde Koherentzia Eskema.

Dokumentu hau herriarte mailan eraikitzen da, Baxenabarreko 44 herrietan. Honen lantzea, Planifikazioaren arloko eskumena duen Euskal Hirigune Elkargoaren esku emana izan da, herriekin zuzeneko harreman osoan.

Alabaina, antolamendu-politika orokor batean sartu eta praktikak harmonizatzen saiatzearekin batera, Elkargo azpiko Tokiko Hirigintza Planak, bizi-arro bakoitzaren berezitasunak kontutan hartzen ditu. Oreka egoki hori kausitzeko, Euskal Hirigune Elkargoak 5 perimetro ezberdin finkatzeko baimena ukan du: Lapurdi Mendebaldea (itsasbazterra), Lapurdi Ekialdea (kostalde ondoa), Amikuze, Xiberoa eta Hego Baxenabarre.

Hainbat gaikako tailerretan, zuzendaritza-batzordeetan eta beste lan-saio batzuetan, tokiko hautetsiek eta Euskal Elkargoak hainbat arlotako adituak dituzte lagun (ingurumenekoa, sozioekonomikoa, laborantzakoa, ...), lan horietarako, lurraldeko jokagaiei ahal bezain hurbiletik erantzunen dien Elkargo azpiko Tokiko Hirigintza-Plan baten lantzeko.

Gaur egun, azterketak lurralde-diagnostikoa lantzeko heinean daude, eta honek lurraldearen jokagai nagusiak finkatzen ditu. Diagnostiko problematizatu honi esker, Baxenabarreko hautetsiek eta Euskal Hirigune Elkargoak, ondoko 10 urteetarako garapen-prospektiba bat finkatzen ahalko dute, Antolaketa- eta Garapen-Iraunkorren Proiektuaren bidez gauzatu.

Herriarrak eta hautetsiak laster mobilizatuko dira, batez ere bilkura publikoetan, proiektuen aitzinamenduak eta hirigintzako dokumentu berri honen helburu nagusiak aurkezteko.

Urrunago joateko, Hego Baxenabarreko Elkargo azpiko Tokiko Hirigintza-Planak informazio plataforma bat badu, azterlan dokumentuak bertan eskura ezarriak izanen baitira lantze-prozesuaren denbora osoan:

<https://plui-sudbassenavarre.communaute-paysbasque.fr/>

Proiektuaren eraikuntzan parte hartu nahi baduzu, zure oharrak ere aurkez ditzakezu, lurraldeko Herriko Ete bakoitzean zure eskura ezarriak diren elkar aditze-erregistroetan idatziz.



IPAR EUSKAL HERRIKO INTERES OROKORREKO PROGRAMA BIZITEGIA HOBETZEKO LAGUNTZAK

Dagoen parke pribatuari buruzko ekintza publikoa, Euskal Hirigune Elkargoko bizilekuaren tokiko politikaren ardatz egituratzaile bat da. 2018az geroztik 158 herrietan obratua den Interes Orokorreko Programak, gaitzeko arrakasta biltzen du Ipar Euskal Herriko biztanleen artean.

Jabeek okupatzen duten 1.242 etxebizitzaren arraberritzea eta 67 bizitegi huts baino gehiago merkaturatzea ahalbidetu du. Horri esker, lurraldeko bizitegi hitzartuen eskaintza zabaldu da. Esperientzia horrek hala erakutsirik eta bizitegi pribatuen jabeek diru laguntzak baina baita laguntza tekniko eta administratiboa eskaintzen jarraitzeko nahian, Euskal Hirigune Elkargoak dispositiboa berriztatu du bi urteentzat.

1 / Obrak egin nahi dituzu zure etxean? (arraberritze energetikoa, bainugela baten egokitzea, bizitegi osoaren berritzea). Diru laguntza bat eskura dezakezu, zenbait baldintza betez geroz (bizitegian bizi diren pertsonen baliabideak, obra motak).

2 / Alokatzeko duzun edo alokatu nahi zenukeen bizitegi baten jabea zara (bizitegi hutsa)? Diru laguntzak eska ditzakezu ere.

Edozein xehetasun jakiteko, SOLIHA Ipar Euskal Herriekin harremanetan jar zaitez. Aholkuak ukanen dituzu, urririk eta engaiamendurik gabe.

Euskal Hirigune Elkargoak SOLIHARI galdegin dio, jabeak dauden diru laguntzetaz jakinean ezartzea eta diru laguntza horien eskuratzeko araberako txostenak osatzen laguntzea. Zure proiektua, azterketa tekniko baten, araudi- eta diru laguntza-azterketa baten gai izanen da (zein laguntzak? Nola ukan delako laguntzak? Jabearen gain den gainerakoaren diruztatzea, etab.).

1.300 jabe baino gehiagok Interes Orokorreko Programaren diru laguntzak ukan dituzte jadanik. Eta zuk, zergatik ez?

Bizitegia hobetzeko laguntzei buruzko xehetasunak ukaiteko, SOLIHA Ipar Euskal Herriekin harremanetan jar zaitez, 05 59 46 31 50 telefono zenbakira deituz (deia urririk da) edo ondoko helbide elektronikora idatziz: habitat.paysbasque@solih.fr

HELBIDERATZEA

PANOEN PAUSATZEA

AHAIZEko
bidea

Ohartu zirezten bezala, helbideratze lana joan den urtetik bukatua baldin badugu ere, panoen pausaketa ez da oraindik eginga izan, karraketan eta zuen etxeetan. Beranta handia hartu dugu arrazoin desberdinengatik bainan jakinarazten dautzuegu manaketa abian dela eta ondoko asteetan errezebituko ditugula pano guztiak. Herriko langile den Xan Costa pasatuko da beraz zuen etxetik panoaren pausatzeko ahal bezain laster. Bestalde, helbideen eguneratzeetan, arazoak baldin badituzue, ez dudatu Herriko etxea kontaktatzen.

PLAZAREN ANTOLAKETA

Plazaren antolaketa lehentasun bat da guretzat. Zentzu horretan dugu Arrosategia etxea erosi bere lur eremu handiarekin eskola publikoa eta ikastola lotzen dituenak ezker pareta, kantina eta aisialdi zentroaren espazioari.

Erosi bezain fite, kantinara joaiteko, bide nagusiaren saihesteko gisan, bidexka bat sortua izan da eskoletako haurrentako.

Arkitektura, Urbanismoa eta Ingurumenaren Kontseiluaren (CAUE) laguntza galdegin dugu duela aste batzu :


herriko ontasunen eta bideen egoeren finkatzeko.

heldu diren erosteei begira posibilitateak ezagutzeko

biharko antolaketa hori kurutzatzeko PLUiarekin.


Nahiz eta konziente giren lehen bai lehen eskolen eta Herriko etxeko bazterrak segurtatu behar direla, herri barne osoaren inguruko gogoeta bat eraman nahi dugu. Denbora gehiago galdegiten baldin badu ere, egutegi baten finkatzeko baliatuko da (obra epe desberdinak) obrak egin gabe elgarren arteko loturarik gabe.

Gogoetaren hein hontan, herri barnearen antolaketa eta berpiztaraztea denen interesetan denez, konbentzituak gira erronka nagusi horri erantzuteko, interesatuak diren Ortzaitzar guzien parte hartzearekin egin behar dela.



Horretarako, 2023 urte hastapen huntan bilkura parte hartzaileak proposatuko dizkizuegu. Ez dizuegu proiektu bururatu bat erakutsiko baina bolondres guziekin biharko Ortzaitzarren proiektua eraikitzea proposatuko dizuegu.

Espero dugu nunbre handian parte hartuko duzuela proiektu hori ahal bezainbat jendeen beharrei egokitzeko eta gogoeta ahal bezain koherentea eraikitzeko.



LEHENGO HILERRIAREN ARABERAKOTZEA

Herriko etxeak erabaki du hilerriko parte zaharra arauen arabera emaita.

Arauen arabera emaitak zer erran nahi ote du? Gaur, hilerri zaharrean diren hobiak, gehienak "lur amankomunean diren hobiak" dira eta ez "kontzesio hilobia".

Horrek erran nahi du, herriak berea den leku bat zuen esku uzten duela urrik eta hori frogatzen eta ofizializatzen duen dokumenturik gabeduen

Horrek erran nahi du Herriak, berea den leku bat zuen esku uzten duela, ordainik gabe eta hobien lekuak zuen familiei lotuak direla, baieztatzen eta ofizializatzen duen dokumentorik gabe.

Legez erran nahi luke, Herriak nahi balu, zuen hobia berriz hartzen ahal lukeela 5 urteren buruan, azken ehorzketaren ondotik.

Garrantzitsua da jakitea hilobi bat ez dela etxe bati lotua, aintzek uste duten bezala. Hala nola debekatua dela lekuen bat besteari emaita komeni zaurkun bezala.

Zendako garrantzitsua da erregulartze hori ?

1- Lehen-lehenik, zuek eta zuen hilen gerizatzeko da, baieztatuz baliatzen duzuen tokia zuen familiari eta ondokoeri emana dela epe mugatu eta erreberri daitekeenarentzat.

2- Iduri luke hogoitahamar bat hobi arrunt utziak direla. Erregulartze lana egin ondotik, ez badu nehork bere burua ezagutarazten eta baieztatzen bada hobi horiek utziak direla, herriak errekueratzen ahalko ditu.

3- Ondorioz, hilobi batzu libratuko dira hilerriko parte zaharrean, interesatuak diren familientzat. Hala ez du Herriko Etxeak hilerriaren handitzeko obrarik egin beharko ondoko urteetan.

4- Orain arte, ez zen jakiten ahal zonbat jende ehortzirik zen hilobi bakotxean, erregistrorik ez zelako. Orain bat atxikiko da eta horri esker, jakiten ahalko da xuxen zonbat leku den hilobi bakotxean, sorpresa txarrik ez ukaiteko.

Hala zendako proposatuko dautzuegun egoera hau erregulartzea, « lur amankomunean » den zuen hobia, familiako kontzesione bilakaraziz. Horretarako, kontzesione bat ukaiteko 30 urtez, 60€ ordaindu beharko dira.

Jakin behar dena : hilobi hori ez da baidezpada zuen kontzesione propioa izanen, baizik eta familiako kontzesionea. Erran nahi baitu, barnean ehortzirik diren ondoko guziena, ezkontzazkoak barne. Kontzesione titulu bat emana izanen zaurue.

Aurten, auzoka, gutun bat errezebituko duzue hobien erregulartzerat jiteko herriko etxerat.

Anartean, informazio gehiagorentzat, ez duda, Herriko Etxearekin harremanetan sar zaizte edo zuen auzoko erreferenteekin.

ORTZAIZEKO BIZIA



UDAKO EKITALDIAK

2022ko udan, aitzineko urteko hitzordu batzu berriz antolatu ditugu, ukan zuten arrakasta ikusirik. Hauek herrian bizi baten sortzeko xedea dute, herriko plaza dinamizatuz baita ere, kulturari leku bat emanez herrian.

Xehekiago, joan den uztailaren 17an, igandez, Lak'arte ilunabarra antolatu dugu, lekuko eta inguruetakoa artistei espazio bat eskainiz beren obren erakusteko Lakan. Bero bainan goxo, momentua preziatua izan da herritar eta hurbildu diren guzienganik. Artista berri batzu guregana jin dira ere ondoko urteetan proposamena berritzeko eta beren parte hartzeko xedearen erakusteko. Gogoan atxik orduan aurten ere hain segur hitzordu hau emanen dautzuguelako !

Horrez gain, kanpoko zinema gaualdi bat antolatua ginuen, bi aldiz ezeztatu behar izan duguna aroa ez baiginuen lagun, tresneria horrek galdegiten dituen kondizioak ezin hobek behar direlako. Espero dugu 2023an lortuko dugula horren gauzatzen.

Azkenik, jaz bezala, Gaueko merkatua arrakastatsua izan da. Aurten, herriko hiru eskoletako burasoen elkarteei proposatu dugu honen antolaketa eta hauetakoa bik parte hartu dute honen gauzatzen : Ikastolako eta eskola publikoko burasoen elkarteek. Arrakasta handia bildu du berriz ere gaualdiak eta badirudi, hitzordu behartu bat bilakatuko dela Ortzaizerentzat, agorri hastapen hortan.

Jende andana bat bildu da ekitaldi horietan eta plaza animatzeko paradak izan dira, merexi duen lekua emanez herriko bihotzari, bainan ere kulturari, euskarari eta nola ez, herritarren arteko harremaneri. Milesker Ortzaiztar guzieren hitzordu horietan parte hartzeaz eta herriko bizian zuen harritxoa ekartzeaz.



LIBURUTEGIA


2022an, hitz eman bezala, liburutegiak bere egoitza berria atxeman du, posta agentziaren gelan. Leku goxo bat duzue beraz hor, liburuak irakurtzeko baita etxera eramaiteko. Zerbitzu hori kitorik da. Kurios direnentzat, ez dudatu hurbiltzera : posta agentziaren tenore berdinetan idekia da, asteartetik larunbatera 9etatik eguerdira. Liburuak badira denendako eta urtean zehar aldatuak dira, departamenduko liburutegiarenganik. Horrez gain, jaz bezala, Herriko etxeak haurrendako euskarazko liburuak erosi ditu, 100€ren balioarentzat, hauek galde handia dutelako eta eskas direlako.



JOSTAGUNEA

Bernadette Argainek egiten dautzue harrera asteazken eta ibiakotz goizetan 10etatik eguerdira. Jokoak mailegaten ahal dituzue, urtean 20€-ko urtesari bat hartuz familia, eta/edo bertan jostatzeko parada bada. Ttipientzat leku bat antolatua da. Joko guñe eder hortan kopuruan hurbilduko zireztela espero dugu. Eskolako garai guzietan, 3 eskoletako haurrak egun erdi batez jostatzen ahalko dira jostagunean, joko desberdinekin beren erakasleak lagundurik.

2022an, Ludo 64eko 2 langileek familier 3 animazio joko desberdin batzuekin proposatu dituzte : zurezko joko handiak, eraikitze jokoak, gizarteko jokoak, kooperazioko jokoak,... Jostagunean, joko motak aldatzeko, herriko etxeak gizarte joko berri batzuek erosi ditu, Gioki, Hazparneko dendan. 2023ko primaderan, Zura Lagun, Baigorriko enpresak, zurezko joko handi batzuek erakiko ditu egur birziklatuarekin ttipi eta handien libertzeko.



ELKARTEEN HITZA

BESTA KOMITEA

Aurten ere, Ortzaizeko Gazteriak Ahaize Mendiko zikiroa antolatu du. Iaz bezala, hautatu dugu zikiroa afari gisa antolatzea.



Uda bukaeran, Ortzaizeko bestak 3 egunez iragan dira programa kargatu batekin, Loriatu gira hainbeste Ortzaiztar eta kanpotiar motibatuak ikusirik.

Urtea bukatzeko, ortzaizeko gazteriko kideak elkarretaratuko gira Eguberriko afariaren kari. Gualdi horretan, gazte berriekin bilduko gira heldu diren besteei pentsatzeko.

Ortzaizeko gazteriko kideek eskertu nahi lituzkete Ortzaiztar guziak bestetan parte hartzeagatik.


Plazer bat izan da guretzat besta horien antolatzea zuentzat.

Heldu den urtean, ez duda etortzea, aurten bezain motibaturik ! Nunbrean goaitatzen zaituztegu !



PETANKA

Petankako elkarteak plazer handi batekin gomitatzen zaitu elkartean sartzera giro simple eta goxo batean jostatzeko. Bulego berriko lehendakaria Joseph Borg da, diruzaina Morin Christian jauna eta idazkaria Guedrat Gérard jauna. Pribilegioa dugu ere ohorezko lehendakari ukaitea Genet Jeannot jauna. Laster arte eta urte berri on.



GUTARTEAN

GUTARTEAN adin ederrekoen elkarteak, 60 urtez goiti dituzten presunak biltzen ditu memento goxo batzuen elgarrekin pasatzeko. Egungo egunean 93 kide ditu elkarteak.

Urte guzian antolatzen ditu aktibitate ezberdinak :

Urte hastapenean egiten du bere biltzar nagusia, usaian otsailean, bazkari batekin.

Urte guzian, bi astetarik, elgarretaratze aratsalde batzu egiten ditu, joko batzuekin eta aratsaldekoa elgarrekin hartuz.

Urtean zorbait ateraldi antolatzen ditu eta herriko edo hurbileko ostatuetan bazkariak.

2022-an antolatu direnak :

Landesetan ateraldia, autokarrez, Poyaller eihera eta Mayliseko abadia ikusten izan gira.

Muskulu fritak apairua Ortzaize Komptoir ostatuan.

Oilokia eltzean Lasa herriko ostatu batean.

Kabaret bazkaria Dantxarian

Eguberriko aratsaldekoa sorpresa batekin Laia xokolaterian.

Bestalde, Nanou, elkarteko idazkariak, informatikan laguntza batzu ekartzen ditu.

Elkartea 60 urteak dituzten guziori idekia da, dudarik gabe hurbildu eta ongi etorria izanen duzue.

Harremana : Nanou – Idazkaria : clubgutartean@gmail.com edo 06.81.52.80.60



ORTZAIZE-ARROSAKO ESKOLA PUBLIKOKO BURASOAK

Ortzaize-Arrosako burasoen elkartea, Arrosa eta Ortzaizeko eskola publikoetako burasoek osatzen dute.

Pasa den urtean, burasoen elkartea aktiboa izan da bi herrietan iragan diren ekitaldietan parte hartuz: Eguberriko xokoleten salmenta, lehendakaritzarako hauteskundeetan eta Arrosako merkatuetan bixkotx saltzeak, maiatz lore salmenta okindegi aitzinean, edo ere gaueko merkatuan parte hartzea Ortzaizeko ikastolako burasoekin.

Lehen aldiko aurten, lore salmenta bat antolatu dugu, amen besta kari. Hau okindegi aitzinean iragan da eta jabeak eskertzen ditugu.

Ekitaldi horiek guziak hainbat proiekturen diruztatzen lagundu gaituzte : igerilekua, zinema, ikusgarriak, bizikletaz egin 3 eguneko egonaldia, urte hondarreko ateraldia eta besta... Hor eskertu ahal izan dugu Maylis Anchordoquy gure haurrak hurbiletik lagundurik eta aitzinera eramanez. Gure eskolara ongi etorria egiten diogu Soizik Arreguy-ri !



Bi herriko etxeak eskertu nahi genituzke beren laguntzagatik.

RPIko buraso guziak gomit dira elkartean sartzera, jakinez kidetza urririk dela. Denen parte hartzea garrantzitsua da, gure haurrek segi dezaten proiektu eder batzuen ukaiten.

2023 urterako, gure agiantzarik hoberenak luzatzen dizkiegu Arrosatar eta Ortzaiztar guzier !

Burasoen elkarteko bulegoa.



ORTZAIZEKO IKASTOLAKO BURASOAK

Ikastolak Ortzaize, Irisarri, Suhuskune, Iholdi, Bidarra eta Arrosako hurrei egiten die ongi etorria. Gaur, 67 familia dira ikastolan, 96 ikasle eta horietarik 21 Ortzaizekoak.

Kontratupean den eskola da ikastola, bakotxaren inplikazioa behar-beharrezkoa da ibilmoldearen segurtatzeko.

2022an, ikastolak ekitaldi frango antolatu ditu : bertso afari bat urtarrilean, bazkariaren zerbitzua Bidarraiko Libertimenduan otsailean, Ikastola Fest gaualdia (Zetak, Gatibu, Xiberoots eta Matraka) eta Nafarroaren egunean parte hartzea apirilean, Herri Urrats maiatzean, Mendikleta ekainean, talo saltzea Bidarraiko bestetan, Erle beltza eguna eta Brik a brak-a urrian, pizza gaualdi bat azaroan eta xanpaina salmenta urte hondarrean. Urte osoan zehar erosten ahal duzuen xanpaina, buraso batetatik hurbilduz gero.

2022an, Ikastolako ikasleek AEK-k antolatu Korrika ttipin parte hartu dute. Ekitaldi hunek herriko hiru eskolak eta Irisarriko eskola elgarretaratu ditu.

Ikastolak Herriko etxeak sustatu ekitaldietan ere parte hartu du, hala nola agorrileko gaueko merkatuan, eskola publikoko burasoekin elkarlanean. Merkatu hau berriz ere arrakastatsua izan



da eta horrek herriko eskoletako burasoak elgar-ezagutarazten ditu. Bestalde eguberriko bakantzen bezperan, ikastolako hurrek ere ongi etorria egin diote Olentzerori.

Ikastolak, ikastolaren baitan antolatzen ditu gertakariak, euskararen erabilpena sustatzeko, zinema gaualdi bat proposatuz, bainan ere ipuin irakurketa bat eta euskarazko liburu salmenta bat Menta liburudendaren partaidetzarekin.

2023ko, huna ekitaldi batzuen berri:

-Urtarrilaren 28an : Bertso afaria Suhuskuneko gelan, Jon Maia eta Sustrai Kolina bertsulariekin.

-Martxoa: Burger gaua

-Apirila : Xokoleta salmenta eta Nafarroaren eguna

-Maiatzaren 14a : Herri Urrats

-Ekainaren 25a : Mendikleta

-Uztaila: Talo salmenta Bidarraiko bestetan

-Agorrila : Gaueko merkatua Ortzaizen

Xehetasun gehiago nahi baduzue, hurbil zaitzete ikastolako buraso batetaz. Ikastolari buruzko xehetasun guziak aurki ditzazkezue www.ortzaizeko-ikastola.net webgunean.

ARROSA-ORTZAIZEKO BETERANOAK

1. Bilan moralak :

Ortzaizen, 2021eko azaroaren 11an iragan den ez ohizko biltzar nagusiaren ondotik, gure bi elkarteak bildu dira Ortzaize-Arrosako Beteranoak izena hartuz.

3 lehendakarien artean eremaiten dugu elkartea : Serge Klieber, Anne-Marie Tauziet eta nihaurek. Serge eta Anne-Marie diruzainak dira. Pettan Trounday eta Serge, banderariak dira. Bi Herriko Etxeek beren sustengua erakutsi dute elkarteari : garrantzitsua da eta ene adixkide guzien izenean, eskertzen ditut.

2. Gure bihozminak :

Badakigu ez girela betirako mundu huntan, bereziki gure adina ikusirik. Eta ene izenean hitz bat erran nahi diet, ene izenean, 2021tik gaur arte, hurbiletik ezagutu dituztan zendu direnei..

Ez badu bakotxaz dena erraiten ere hitz hunek, elkartu gaituen guzi hortaz lekuko izan nahi du.

René Tauziet : 1939-45eko azken gerlaria, Grave eta Royaneko borrokak ezagutu dituenak liberazio garaian. 1944eko negu bortitzean, aliatuen bonbardaketak beldurrarekin hurbiltzen ikusi baditu ere (tiroak bere zilo ondoan erortzen zirelarik lohian), Leclerc Jeneralaren 2. dibisioeko tanke blindatuak esperantzarekin ikusi ditu jiten.

Pierre Oxandaburu : adixkide deliberatua eta zuhurra, Anne-Marie-k eta familiak sustengatzen zutena. Lehenago zendua zen Jean-Pierre Etchechury bezala erraiten zautan : "Peio, jakin behar duk." Beraz, ixiltzen nintzan eta entzuten nuen. Eta eni, "erdi Xiberotarrari", erakutsi zautan Baxe Nafartarren entzuten.

Jean-François de Susbielle : 3. dimentsioa (helikopteroak) eta Mitterrand jenerala (lehendakariaren anaia). Bi berezitasun hauek ereman dute Afrikan eta Ekialde Hurbilean gaindi hala nola Defentsa Ministeritzaren Arma Zuzendaritza Orokorrerat.

Gure bien lanbideak usu kurutzatu dira bi berezitasun hauen inguruan.

Jean-Pierre Esponde : Arrosako bohamia eta aho handikoa : dena errana da. Baina sustengatu behar izan dutana fermuki eta adixkideki, bere seme baten heriotzaren ondotik bereziki, AZF lantegian Tolosan.

3. **Oroimenaren ondotik**: dirua aipatu behar da gordinki. Urte bateko desmartxen eta dokumentu ainitz igorri ondotik, Serge eta Anne-Marie-k esperantza dute Banko Postalaren delirioak geldituko direla, Garazi aldean lo dagon elkartearen A Libreta kudeatzeko.

Milesker ene mezua bururaino irakurtzeagatik eta osagarri hoberena desiratzen dautzuet 2023ko.

Peio Bouquet Koronela (H)



Aujourd'hui... comme hier
**L'UNC défend
les droits
des combattants**



URZAIZ ELKARTEA

2022 urtea berezia izan da Urzaizentzat eta nola ez Ortaizerentzat : Plazatik Harat Kabalkada eman dugu joan den irailaren 18 eta 24an, bi giro arrunt desberdinetan baina publikoa beti lorios. Gure memoriak eta oroitzapenak elikatzeko, horra irudi zonbait :



Argazkiak : Patxi Laskarai eta Eric Eyhartz



Parte hartzaile eta laguntzaile guztiak bildu gira joan den abenduaren 17an, herriko proiektu horri bukaera baten eskaintzeko, bazkari baten inguruan.

Cure xedea da hala ere, hor sortu den giroarekin segitzea herriko plaza alaitzen, euskaraz. Hala nola, haurrentako dantza kurtsuok abiatuak dira bigarren urtearendako, joan den irailetik. Euskaraldiaren antolaketan ere parte hartu du elkarteak, auzo herriekin.

Dena ideia eta amets buruan hasten dugu 2023 urte hau, Ortzaize biziartzten segitzeko !

Desiratzen dautzuegu herritar oroeri urte berri on bat, eta espero dugu urte honek oraino ere herriko plazan elkartzeko parada aberatsak eskainiko dautzuegula.



Argazkiak : Patxi Laskarai eta Eric Eyhartz

Laguntzen emaitza

Aurten ere diru laguntzak emanak izan dira.

- Haur elbarritu bat duten familiei
- Sortu berri bat duten familiei
- BAFA pasatu nahi duten gazteei, animazioa segurtatzeko aisialdi zentroetan.

Eguberriko opariak

Artisauen herrixkako ekoizpenen deskubritzeko parada : eguberriko poltsa bat. Bainan batez ere... adinetako jendeen bisita, oroitzapenen partekatzea, irri partekatzea, momentu goxo baten partekatzea !



GOXOKI ETXEAN, Hurbileko Baliabideen Aktibitate gunea,

Baigorri kokatzen da Larrazkena xahar etxean, hunen helburua da jendeen laguntzea ongi xahartzen etxean egonez.

Ekipa batek (erizain koordinatzaile bat, ergoterapeuta bat, dietalari bat eta psikologo bat) urrik proposatzen ditu ebaluazioak, aholkuak eta segipenak etxean. 60 urte baino gehiago dutenei edo/eta hurbileko ala profesional laguntzailerik zuzenduak dira zerbitzu horiek. ARS-ak ditu profesionalen gastuak ordaintzen, segipena etxean eginez ala instituzio batean.

Helburuak:

- Ø Etxean diren jende xaharren janari arazoak hobetzea.
- Ø Etxea egokitzea jende xaharren beharrei.
- Ø Kanpoko eta hurbileko laguntzaileen parte hartzea errextea eta segurtatzea.
- Ø Erorikoak saihestea.
- Ø Lagundua/laguntzailearen arteko hitzegitea errextea eta mantentzea.
- Ø Laguntzailerik pausa momentuak eskaintzea.
- Ø Etxean egiten diren esku hartzeen emendatzea.
- Ø Ospitaleratzeak ttipitu.

Funtzionamendua :

- Etxean behar bat badelarik, janari, etxearen egokitzea edo laguntzailerik lotua, koordinatzailea juntatu :
Etchechury Christine : 05 59 37 48 22 / 06 30 10 24 99 / goxokietxean@orange.fr
- Presunaren beharrak identifikatuak dira elgarrizketa batean.
- Bakarkako aterabide zehatza proposatua izanen da, aktibitate guneko profesional bat edo gehiagoren laguntzarekin. Ondotik, baliabideen aktibitate guneak ekintzak plantan ezarriko ditu.
- Xahar etxean, gai desberdinetako tailerren egiteko parada emanen da.
- Trimestroka, aktibitate guneko koordinatzaileak ebaluazio bat egiten du.

Sasoinen erritmoan, euskaraz edo frantsesez, baloreak bizitzen dituzte (elkar laguntza, kooperazioa, errespetua) izan dadin klasean Montessori aktibitateekin ala kanpoan eskolako baratzean, baita ere eskolatik kanpo, aroa gure alde delarik.

Erran gabe doa, APEL eta OGEC-en inplikazioari esker dituztela proiektu horiek eremaiten ahal. Hortarako, animazio ezberdinak proposatu dituzte : ball-trap, bixkotx salmenta, urriko kantaldia Lauburu eta Xiberotarrak taldeekin, edo berriki sortuak eta josiak izana diren abenduko egutegiak. Beste proiektuak etorriko dira, bainan batzu sekretuak dira orainokoa.... Behar bada berriz ere gure maletak prestatu beharko ditugu ! Nork daki ?!

Beste informazio nahi badituzue eskuratu, deitu 05 59 37 78 58 -ra edo mailez : ecole-st-michel64@orange.fr

Nahi badituzue gure ikasleak, erakasleak eta egoitzak ezagutu, eskolako ateak zabaltzen ditugu 2023-ko, urtarrilaren 28an. Zatozte, ongi etorriak zirezte !

ORTZAIZEKO IKASTOLA

Ortzaizeko ikastolan 2021/2022an 90 ikasle pasarekin bukatu genuen ikasturtea. Eta aurtengo ikasturtea 96 ikasleekin hasi dugu.

Urte guziz ate-idekiak antolatuak dira : ikastola ikus daiteke gelaz gela eta ikustera jiten diren burasoek irakasleei parada badute galderen pausatzeko pedagogiaz, haur hezkuntzan eta lehen mailan zer egiten den, nola egiten den, zer proiektu lantzen diren...

Burasoen ordezkariak ere egun hortan ikastolan egoten dira ikastolaren ibilmoldea azaltzeko. Ondoko ate-idekiak 2023ko martxoaren 4an iraganen dira.

2021 / 2022eko urteko proiektua: Historia.

Urte guzian Historia landu genuen haur hezkuntzan eta lehen mailan, batez ere Euskal-Herrian edo Euskal-Herriatik hurbil hasi izan ziren gertakari nagusiak eta garaiari lotuak ziren pertsona famatuak ezagutu ahal izan zituzten, horietan munduan gairi ezagutuak, testoen, irudien, bideoen bidez.

Proiektu hau beste aitzaki bat izan zen aho adierazpena lantzeko, gelen arteko aurkezpen eta trukaketak bultzatuz.



Historiako gaian oinarrituz epe bakoitzean ateraldiak antolatu genituen:

- 2. eta 3. Zikloan, historiaurrea aipatzeko Isturitzeko Otsozelai harpeak bisitatu genituen hango animatzaileak argibideak ematen zauzkigun bisita denboran.
- Antzinaroa garaiari lotura egiteko, Irisarri Ospitaleko animatzaileek Anne Pagolak eta Manu Iñarrak xehetasunak eman zauzkiguten : Donazarreko ur-onen tokiak begistatu genituen baita ere egun berean Urkulu kaskora joan ginen.
- Erdi Aroari doakionez, Donazarreko jauregi muinoa ikusi genuen, haatik jauregirik ez da ageri aspaldi-aspalditik, D. Garaziko harresiak eta galtzadak eta Jakobe bide zati batean ibili ginen baita Izura Asmeko jauregia bisitatu.

ezagutu eta ikusteko.



1.zikloan urte bukaerako ateraldia Donibane Garaziko zitadelan iragan zuten.

2.ziklokoekin urteko ateraldia Irisarri Ospitaleko zentroan iragan zuten eta historiako garai batzuk bertan landu zituzten baita ere historiako herexak diren lekuak bisitazera joan ziren Manu Iñarra animatzaileak gidaturik.

3.Ziklokoekin berriz urte bukaerako ateraldi baliatu zuten Oriara joatean Irungo Oiasso erromatar hiriaren aztarnak ezagutu eta ikusteko.

3.hiruhila osoan, adin guzietako haurrak nahasirik, Historia gaia landu zuten antzerkiaren bidez Arantxa Hirigoieneren laguntzarekin. Ekain hondarreko ikusgarri bat prestatu, burasoen aitzinean antzeztu eta kantatu zuten.

ONDAREIZULA

2022an, elizaren arraberritze obrak bukatu direla eta, estrenaldia antolatu dugu joan den martxoaren 5 eta 6an. Ofizialeak, eskaintzak egin dituztenak, « Ezkilaren taupadan » ondare balorizazio proiektuan parte hartu dutenak, baita herritarrak bildu ahal izan dira asteburu horretan, obren emaitza deskubritzeko, ganerra bisitatzuz batez ere. Horrez gain, Iparraldeko Orkestrak « Lau sasua » kontzertua eskaini zigun, usaia guti dugularik horrelako eskaintzen ukaiteko herrian, parada paregabea izan da. Bukatzeko, « Ezkilaren taupadan » deitu dugun filma ere deskubritu duzue asteburu horretan : hau, herritar batzuen lekukotasunak biltzen dituen filma laburra da, eliza delarik aipagai. Honen ikusteko xedea baldin baduzue, jakin ezazue beti ikusgai dela Kanalduderen webgunean.

Elizari buruzko ziklo hau bururatzera doa eta aurten emanen dizkiogu azken pausoak, laster ukanen duzue hauen berri. Parada izanen da guretzat bestalde, ziklo berri baten idekitzeko ondoko bi urteetan aipatuko duguna.

Programa honen funtsa kultura eta ondareari leku baten egitea da gure herrian. Beharrezkoa iduritzen zaigu kulturaren murgildua den jendea sustengatzea, proiektuak muntatuz eta diruztatuz, baina ere herritarrek lekuko ondarea berenganatzea, proiektu parte hartzaileak antolatuz. Ez dudatu beraz herritar interesatu guziak guregana jitea, gai, ekitaldi proposamenekin baita antolaketan parte hartzeko xedearekin.



OLENTZERO GAUA

Jazko arrakasta ikusirik, Herriko Etxeak Olentzero gaua antolatu du elkarlanean, herriko hiru eskoleko ikasle eta erakasleekin. Eskoletako haur guziek ongi etorria egin dakote Olentzerori klasean ikasi kantuak emanez.

Asteazken arratsaldetan euskal dantzak ikasten dituzten haurrek, ikusgarri ttipi bat proposatu dute ondotik.

Gaualdi hunek hiru eskoletako haurrak bildu ditu proiektu amankomun baten inguruan, euskal kulturako pertsonai mitiko baten ezagutza eginez.



ORTZAIZTARRAK MINTZO GAUALDIA

Joan den maiatzaren 20an, Euskal Kultur Erakundearen proposamenari ekin diogu, gaualdi bat antolatuz Ortzaiztar zombaiten lekukotasunak biltzen dituen filma baten inguruan. Hauek « Eleketa » programaren baitan bilduak izan ziren eta 2022an, barnekaldeko herri desberdinetan ahozko ondare horren erakusketa bat egina izan da. Ortzaizen, posta agentzian egon da borna interaktibo bat larrazken huntan, gure eskualdeko lekukotasunak begiratzeko parada uzten zuena. Espero dugu nahi bezala baliatu eta goxatu zitzela bideo horien begiratzen.



MENDIEN GARBITZEA:

Joan den primaderan, laborantxa lan taldeak ILAPIXTIA gunean 20 hektare mendi garbiarazi ditu kabalen mendira igortzea erretzeko. Aurten ere beste eremu bat garbitzea erabakia izan da.

ARTZAINZA GUNEEN SEINALEAK

Artzaintza guneetan ukan behar diren ibilmolde onen orotarazteko ibiltarieri, 16 panel plantan emanak izan dira mendigunera buruz doazten bideen abiatzeetan. Euskal hiriguneko mendigune guzietan eramana izan da egitate hori. Panel handiago eta argiago batzuk plantan emanak dira ibilaldi abiatze aparkalekuekan.

BAIGURAMENDI ELKARTEA:

Urte osoan helburutzat elgarren arteko kudeaketa bat plantan emaitza duten herri guzien artean bilkura batzuk iragan dira BAIGURA mendigunez diagnostiko baten egiteko.

Misio zabal baten barne, Lucie Trognon-ek betetzen duen animatzaile postuaren iraunkortzeko asmoz herri bakoitxari galdegina izan zaio hiru urtez, urtero 2000 euroko diruztatzea segurtatzea, diru zama orokorra delarik animatzailearen soldataren %40a. Galde horri baiezkoa eman diogu. Beste zatiaren diruztatzeke, beste diruztatzaileetaz hurbilduko gira (Eskualdea, Departamendua, Euskal Hirigunea).

BAZKALEKUEN PREZIOAK

Baiguramendi inguruko solasen harira, erabaki dugu gure herriko bazkalekuen prezioen harmonizatzea. Ondorioz, prezioen arintze garrantzitsu bat izanen da.

ARDIAK		BEHIAK			AHUNTZAK		ZALDI-ASTO-POTTOKA		
Urte gorako helduak eta erditu ardiak	1etik duten	Bildotsak	2 urtetik gorako behiak	6 hilabete eta 2 urte arteko behiak	6 hilabetetik beherako behiak	Urte 1etik gorako helduak edo erditu duten ahuntzak	Pitikak	6 hilabetetik gorako helduak	Zaldikumeak
3 euro buru bakoitzeko		0 euro	25 euro buru bakoitzeko	15 euro buru bakoitzeko	0 euro	3 euro buru bakoitzeko	0 euro	25 euro buru bakoitzeko	0 euro

ERREKAGRI PROGRAMA

Euskal Herriko herri elkargoak abiatzen du ErreKAgri programa, laborarientzat pentsatiak diren laguntza batzu, ur kalitatearen zaintzea delarik helburua.

Baliabideko weebgunean atxemanen dituzue karta interaktibo bat ingurumen hautagarria begiratzeko eta edateari buruz gidaliburu tekniko bat.

Laborarientzat informazio bilkurak izanen dira :

_ Donazaharren, Lutxibordan urtarrilaren 26an ,10etan

_ Itsasun, Sanoki gelan otsailaren 1ean ,10 etan

_ Xenperen, Denen Etxean otsailaren 2an ,10etan

Xehetasun gehiagorentzat :

[https://www.communaute-paysbasque.fr/errekagri-dispositif-eau-et-agriculture. »](https://www.communaute-paysbasque.fr/errekagri-dispositif-eau-et-agriculture.)

HERRIKO ONTASUNAK

EGUZKI PANELAK EZKER PARETAKO TEILATU GAINEAN

Ezker paretaren hegoaldeko teilatuan, IENER sozietateak iguzkitako panelak finkatu ditu eta laster energia ekoiztuko dute. Oroitarazten dautzuegu, ez dela gasturik izan herriarentzat. Herriko etxeak teilatuaren erabilera utzi dako IENER enpresari.



Instalazioaren informazio orokorrak:

- Potentzia : 36kWp
- Azalera: 180m²
- Kostua : 50 000 € herritarrengandik etorria



Aurreikuspenak:

- Urtero 40MWh ekoiztuko ditu (12 etxeren kontsumoa).
- 1000kg CO2 saihetsiz urte guziz.

HERRIKO LANGILEAK

- Floriane Changalak (*Itola*) iraunkorki herriko langileen taldea osatu du. Idazkaritzan ariko da lanean 20 orduz astean.
- Marie Trounday (*Etxeko borda*) eskola publikoan enplegatua izan da zerbitzu zibil gisa. 24 ordu beteko ditu eskolako asteetan.
- Dakizuen bezala, 1997tik goiti herriko mutila zen Patrice Trounday-ek (Antxia) bere erretreta hartu du 2022ko buruilaren 1ean. Egin duen lan guziarentzat, herriaren izenean eskertu nahi izan dugu apairu baten inguruan.



2022

HERRIKO BASTIMENDUAK

- Katxereneko apartamendua (postako gaina) osoki arraberritua izan da eta alokatzera emana.
- Lan-berry enpresak ezker paretako atea azkartu ditu.
- Biekin enpresak Denen etxeako berinak ordezkatu ditu eta ate berriak ere ezarriko ditu laster.

BIDEAK

- Gerexitenea, Gaztenarenea, Pellorenea eta Aroztegiko zubiak andeatuak izan ziren 2021eko uholdeekin. Aurten arraberrituak eta azkartuak izan dira.
- Primaderan herriko arroila guziak garbituak izan dira.

SAREAK

Gaharduko bideko elektrika sareak lurperatuak izan dira eta argi berriak LED delakoak dira.

GARAPEN IRAUNKORRA

- Ekainaren 6an, ondakin andana bat bildu da Laka errekan eta goiza LOKARRI-k prestatu bazkariarekin bukatu da.
- Martikotenean, Ahaizemendin eta Sabion ziren ondarkindegi basak garbituak izan dira LAGUN elkartearen laguntzari esker.
- Baigurara doan Xaraboileneko bidexka ere garbitua izan da, beti LAGUN elkarteari esker. Espero dugu mendizaleek erabiliko eta aldi berean entretenituko dutela, jakinez gainera aparkaleku bat daukala abiapunduan eta mendiaren erabilpenarako informazio panelak.



2023

HERRIKO BASTIMENDUAK

- Changala-Iñarra enpresak tindatze lanak gauzatuko ditu Apezetxea eta Florentzarenea etxeetan.
- Ezker paretako zeharrargi panela aldatuak izanen dira.
- Asegurantzak kontratu guzien berrikustea eta lehiak emaitza.

BIDEAK

- Uxarako, Irigoizetako, Basaranerrekako eta Basagaitzeko bideak 2022 urte hondarrean berriz egin beharrik ziren. Hauek eginak izanen dira urte hastapen honetan.
- Iraordoki auzoko autopartekatze aparkalekua osoki arraberrituko da normetan emanez.

SAREAK

- Ahaize auzoko sareen lurperatzea
- Herri erdiko sare elektrikoaren indartzea.
- Argitze publikoaren zati bat LED delakoetara pasatzea.

GARAPEN IRAUNKORRA

- Gogoeta bat eramana izanen da ZUBIALDE eta LAKA parkeetako zuhaitz handien kudeaketari buruz.
- Plantan ezarriak diren proiektuei segipen bat eman.

2023AN ALDATZEN DENA

Euskal hiriguneak helburutzat finkatu du hemendik eta 2026era eguneroko hondakinen zama apaltzea %13z biztanleka, hots 8500 tonaz urtero. Horren gauzatzeko bilketaren eta birziklatze arauen zabaltzearen erreforma bat bidean plantan eman du.

Urtarrilaren lehenetik, etxe-estalkiak eta paperak elgarrekin sailkatzen dira eta ontzi horian sartu behar dira untsa husturik eta bata bestearekin lotu gabe.

Estalki berri eta hondakin metaliko ttipi batzuk birziklatzen ahal dira: zaku eta plastikozko boltsak, jakin ontzixkak, plastikozko jaki mintzak, jogurt eta gasna xuri ontziak, maionesa eta hortz pasta hodiak, kafe kapsulak, basozko ontzien estalki metalikoak, erremedio tableta hutsak...

Basokiak gelditzen dira berex sailkatzen diren bakarrak, usaiko ontzietan. Justu plastikozko eta metalezko ttipak dira ontzi horian sailkatzen.

Azkenik, etxeko zikin-untziak arintzen ahal dira ere ahal diren guztiak konpostara botatz!



LURRERA BOTATZEKO DEBEKUA ! OIESKERIAK GELDI !

Bilketa itzuliak egiten dituztenean, Euskal hiriguneko langileek zernahi hondakin aurkitzen dituzte lurlean, izan behar luketen lekutik urrun! Etxeko zikin-untzi, kartoiak, hondakin berdeak edo trabagarriak...

Hondakinen lurlean uztea, izan eremu publikoan edo pribatuan, oieskeria gisatzat hartua da, hauek bilketa gunean berean baldin badira ere.

Oieskeria horiek (naturan utziak edo zikinuntzien aitzinean), arau hauste bat bezala kontsideratua da. Lurrean uzte hori egin duen herritarrek 1500€ko isuna arriskatzten du. Herri elkargoko langile batzuek isun horien emaiteko baimena dute, polizia bezala.

Urririk den hondakintegia aterabide bakarra da, zuen hondakin handi eta arriskutsuentzat.

Baigorriko hondakintegia :

Asteart eta larunbat: 9:00-12:00; 14:00-17:00

Osteguna: 14:00 - 17:00



Garaziko hondakintegia:

Astelehen eta ostiral : 14:00 - 17:00

Asteazken eta larunbat: 9:00-12:00; 14:00-17:00

TAILER NUMERIKOAK

2023ko, "La Fibre 64" erakundeak urrik diren tailer tematikoak proposatzen dauzkigu. Bi oreneko saioak dira azpiko taulan agertzen diren gaiekin.

Aplikazioak :
eguneroko aplikazioen xerkatzea, hautatzea eta instalatzea.

Altxatu, sailkatu dokumentuak eta irudiak ordinagailuan.

WhatsApp erabili hurbilekoekin komunikatzeko.

Argazkien segurtasun kopia egin eta lekuz aldatu mugikorretik ordinagailurat.

Seguritateko erreflexu onak ukan.

Dokumentoak skanatu/numerizatu telefona mugikorrekin eta mailez igorri.

Interneten erosi eta saldu segurtasun osoz.

Osagarria

Izena emaiten ahalko duzue interesatzen zaizuen gaien (edo gaitan). 4 data finkatu ditugu jadanik :

- martxoan : 16 eta 30ean, ortzegunez, Denen Etxean
- martxoan : 23 an, ortzegunez, Herriko etxeko gelan
- apirilean : 6an, ortzegunez, Herriko etxeko gelan

Ez duda Herriko etxerat deitzea izena emaitako. Gaiaren arabera, formakuntzaren eguna jakinaraziko zazu.

HERRIKO ETXEA ETA GARBIREN ARTEKO ELGARRIZKETA

Ohartzen gira Ortzaiztar ainitzek leku hortaz atxikimendua erakusten dutela eta bastimendu horien egoera hortan ikusteak ez du nehor pozten.

Elkarteko administrazio kontseiluak gure orai arteko proposamena ez badu onartu ere, ez dugu esperantzarik galtzen eta sinesten dugu denentzat baikorra izanen den aterabide bat atxemaiten ahal dela.

ZUNTZ OPTIKOA

Aurten, Ortzaizeko etxe ainitz lotuak izan dira zuntza optikoari. Jakiteko sareari lotzen ahal zirezten zuek ere, sar zaizte gune huntan : <http://thd64.fr/> eta sartu « hautagarritasun karta » erlaitzan. Froga ezazue zuen etxe gainean ttitta berde bat badela. Hala bada, zuntza ukaiten ahal duzue, hortarako harremanetan sartu behar duzue Interneteko sarbide hornitzaile batekin zuen etxea aldebat lotzeko. Obrak operadorearen gain izanen dira.

Etxe berrien jabeek Internet gune berean deklaratu behar dituzte beren bizitegiak « Eraikin berri bat deklaratu » erlaitzan.

Ttitta berderik ez duten etxeek lotzeko igurikan dira. Jakin ezazue hurbiletik segitzen dugula egoera eta hedatzeaz arduratzen den TDH64 enpresarekin bildu girela. Jakinean dira herrian ohartu akatsetaz. Enpresa engaiatzen da etxe guzien zuntzari lotzea 2024eko uztaila aintzin. Eginahalak eginen ditugu epe horren ttipitzeko.